

EHIGE KONFEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

PROGRAMARI BURUZKO ADIERAZPENA

Bilboko (Bizkaia) CONFEDERACION "EHIGE" EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAK Euskal Herriko Herri Ikastetxeetako Ikasleen Gurasoen Elkarte eta Federazioak biltzen ditu. Ez dauka inolako loturarik ez inongo alderdi politikorekin, ez inongo erlijio talde edo sinesmenekin, eta irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Ohartuta dago giza eta pedagogia kalitateko Euskal Hezkuntza Publikoaren aldeko lana koordinatu beharra dagoela, partaide guztien borondateekin bat eginda, elkarrenganako begirunean eta askatasunean oinarriturik. Honako lan egiteko moldea dauka: ahalik eta akordio gehien lortzea, partaide guztien oniritziak.

Ordezkapen, elkarrizketa ta erlazio organoa da, etaosatzen duten elkarte federatuen arteko koordinazioa eta elkarlaguntza sustatuko ditu. Konfederazioa osatzen duten erakundeek autonomia osoa izango dute euren jarduerak garatu eta antolatzeko. Federatutako elkarteek egiakaritu egingo dituzte Konfederazioak onartzen dituen baliodun adostasunak.

Euskal Eskola Publikoarentzako Plan bat egin behar dela planteatzen du Konfederazioak. Euskal Herriko Berezko Sistema bat lortzearen aldeko da, eta ondorioz Hizkuntzen Marko Integratua, barne hartuko duena Hizkuntza Normalizatzeko Plan bateratua, herrialde bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanda. Euskal hezkuntza sistema gizarte konkretu batean garatzen da eta bertako balore sozial eta kulturalak eragiten diote.

Horretarako, Euskal Eskola Euskaldun, Aurrerakoi, Askotariko, Laiko, Berdintasunezko, Ekitatibo, Berritzaile, Autonomiadun eta Kudeaketa demokratikokoa proposatzen dugu, gurasoek eta tutoreek hezkuntza prozesu osoan esku har dezaten eta, hezkuntza-erkidegoko gainerako kideek bezala, erabakitzeke ahalmena izan dezaten euren seme-alaben heziketari eragiten dioten gai guztiei buruz, didaktika, teknika nahiz antolaera arlokoak izan; horrela, hezkuntzaren kalitateak etengabe hobera egingo du eta gizarte justu eta duina eraikiko bertan

bizi diren guztientzako. Proiektu berritzaileak sustatu eta lagunduko ditu, norgehiagoka sana suspertuko du eta desberdintasunak ezabatzeko lan egingo du.

Hauek dira Euskal Eskola Publikoarentzat defendatzen ditugun oinarriko printzipioak:

- Hezkuntzaren doakotasuna, unibertsaltasuna eta eskubidea.
- Jabetza eta finantzaketa publikoa.
- Aukera-berdintasuna.
- Hezkuntzaren kalitatea eta ekitatea.
- Euskara eta euskal kultura sustatzea eta garatzea.
- Irakaskuntza demokratizatzea.
- Herri-eskola, herriari lotuta dagoena, ingurunera irekitzea.
- Hezkidetzeta.
- Laikotasuna.
- Aniztasuna errespetatzea, gizarte pluraltasun ideologikoa.
- Hezkuntza-sistema solidarioa.
- Barne hartzen duena, curriculum komuna.
- Lan munduan sartzea eta gizarteratzea sustatuko dituen, herritartasunaren eta inklusioaren sustatzailea.
- Eraberritze eta berrikuntza pedagogikoa.
- Etengabeko formakuntza eta bizitza osokoa.

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- 2003ko urtarrilaren 3an CF/B/00004/2003 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako BILBOKO CONFEDERACION "EHIGE" EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA KONFEDERAZIOAREN Estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritik.

Konfederazioa arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), federazioaren gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

Unibertsitatez besteko Herri Ikastegietako Ikasleen Guraso Elkarteen Federazioek, beren sektore eta herrialdeko ordezkari diren aldetik, osatuko dute Konfederazioa, baldin eta Konfederazioarekin euren borondatez bat egin nahi eta Konfederazioaren helburuak eta Estutuon edukia onartzen badituzte.

KONFEDERAZIOAREN HELBURUAK

2. artikulua- Hona konfederazio honen **HELBURUAK**:

Konfederazioak familien interesak ordezkatzeko ditu kalitatezko Euskal Eskola Publiko batean, Hezkuntza-administrazioarekin erlazionatuko da baita bestelakoekin ere bere helburuak lortu eta Euskal Eskola Publikoaren interesei erantzungo dien hezkuntza-politikak garatu ahal izateko. Federatutako elkarteek planteatzen dituzten erronkak planteatuko ditu baita Euskal Eskola Publikoaren aldeko hezkuntza-sistema faboratuko dutenak ere. Federatutako elkateen jarduerak koordinatuko ditu indarrean dagoen legedia eta beronen Estatutuak betetzen dela zainduz, eta bat-egite loturak sustatu eta dagozkion helburuen garapena bultzatuko ditu.

Horretarako, helburu hauek lortzea du xede:

1. Euskal Eskola Publikoa euskal hezkuntza-sistemaren ardatza izan behar dela defendatu eta sustatu.
2. 0 urtetik 18 urtera arteko eskolaratzea sustatu eta defendatu sare publikoan.

3. Hezkuntza Publikoko Ikastetxeetan ari diren Ikasleen Gurasoek eta Tutoreek Ikastetxe horien jardunbideko arlo guztietan esku hartze eta erantzunkidetasun eskubidearen alde egitea eta hura sustatzea.
4. Teknika kalitate handiko hezkuntza humanistiko eta zientifikoa lortzea, jarrera kritiko askea lantzen duena, desberdintasunen osatzailea eta askotarikotasunaren bateratzailea. Eskola Publiko, euskaldun, ekitatibo, inklusibo eta laikoa, norberaren garapena, jakintzagaiak bereganatzea, bizitza duinerako eskubidea nahiz hezkuntza erkidegoan elkartasun-balioak garatzea hezkuntza-kalitatearen erakusgarritzat dituen ereduaren alde egitea.
5. Hezkuntza legediari buruzko proposamenak garatu eta parte hartzea, euskal hezkuntza eta ikasketa egitasmoak sustatzea, hizkuntza normalizatzeko egitasmoak biltzen dituztenak eta Euskal Herriko izaeraren erroetan eta kultur nortasunean oinarrituak, betiere herrialde bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta eta herrialde guztietan euskararen ofizialtasuna eskatuta.
6. Gizartean eta ingurune politiko eta ekonomikoan guztiz txertatuta dagoen hezkuntza lortzea, kultura-nortasuna (hizkuntza, historiaren zentzua...) berreskuratzeko lanean diharduena, eta helburu horrekin bat datozen elkaratekiko elkarlana sustatzea.
7. Hezkuntza osoaren, eta bereziki euskarazkoaren, kalitatea hobetzea, eta ikastetxeak, autonomiaz, kudea ditzala bere antolaera, kurrikulua eta ekonomia, hori sustatzen duten zerbitzu, trukaketa eta eskolaldi barruko nahiz eskolaz kanpoko jarduerak sortuz eta gauzatuz.
8. Ikastetxeen arteko laguntza eta elkarlan harremani eustea eta horiek sustatzea.
9. Euskal Eskola Publikoa doakoa izatea, aukera berdinetan, diru publikoek finantzatua eta ikasleen osoko prestakuntza aintzat hartzen duena (gure ustez, irakaskuntza bera ez ezik, prestakuntza-jarduera guztiek, testu-liburuek, eskola materialek, jantoki-zerbitzuak, garraioak eta besteak ere doako izan behar dute)
10. Autonomiaduna, demokratikoa eta irekia izatea, ikasleen gurasoen eta tutoreen partaidetza babesten duena, hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideekin batera.

11. Benetako aukera berdintasuna egotea, inolako baldintzatzaierik gabe. Eskola inklusiboa.
12. Hezkuntza-erkidego osoan adierazpen askatasuna bermatuta egotea, baita ekonomia, lege, gizarte nahiz erlijio-arrazoiak ere direla-eta edo sexu, arraza, jaiotza edo bestelakoengatik baztertua ez izateko eskubidea.
13. Eskola mapa bat lortu eskaintza publikoa bermatzeaz gain instalazio duinak eta baliabide material nahiz pedagogiko nahiko bermatuko dituen, normaltasun osoz jardun ahal izan dadin.
14. Hezkuntza ofizial biak ikastea eta erabiltzea bermatzen dituen derrigorrezko eskolatzea lortzea.
15. Gurasoen eskariekin bat datorren Haur Hezkuntza eskatzea. Derrigorrezko hezkuntza amaitu eta lanean hasi bitartean ikasleei eskaintza egokia ematea eskatzea.
16. Erlazioak egin beste erkidego eta hezkuntza-eragileekin.
17. Berrikuntza pedagogikoa sustatu, sormena eta ekintzaitza kultural, sozial eta ekonomikoa.
18. Hezkidetzak, bi sexuen arteko errespetua, analisi kritikoa eta hausnarketa eta emakumeen kontrako biolentzia, homofobia eta xenofobiaren borroka sustatu modu berezian hezkuntza arloan.
19. Erantzunkidetasuna eta familia eta lan-bizitza bat egitea sustatu, baita rolen zein genero estereotipoen aldaketa.

Helburu horiek lortzeko, **JARDUERA HAUEK** egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- a) Herrialdeko erakundeetan nahiz Hezkuntza Publikoaren arloan diharduen edozein erakundetan esku hartzea.
- b) Hezkuntza sistemari eragiten dion orotan, Euskal Eskola Publikoaren, familien eta Federazioen ordezkari jardutea eta haien interesen alde egitea.
- c) Hezkuntza arloan dauden beste elkarte edo erakundeekiko harremanik eta koordinaziorik estuena sustatzea, arestian aipaturiko xedeak elkarlanean defendatu eta garatzeko.
- d) Konfederazioko kide diren Elkarte guztien ahalegin, kezka eta asmoak sustatzea eta koordinatzea.

- e) Hezkuntza zein Ikasketa Egitasmoak gauzatzeko sortzen diren ekimen guztiak sustatzea. Egungo hizkuntza ereduez besteko ekimenak gauzaten laguntzea, finkatutako helburuekin eta hizkuntza normalizatzeko planekin bat ba datoz. Euskara eta euskal kultura gizarte-ingurunean sustatzea
- f) Ikasleen gurasoen gizarte eta jakituria prestakuntza hobetzea xede duen gizarte nahiz kultura arloko edozein ekimen sustatzea.
- g) Elkarterik ez dagoen ikastetxeetan guraso-elkarteen sorrera sustatzea.
- h) Ikasleen gurasoak eta tutoreak prestatzeko jarduerak, eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta informazio, sorospen nahiz lege arloko laguntza zerbitzuak sustatzea.
- i) Irakasleen etengabeko hobekuntza eta trebakuntza sustatzea.
- j) Eratuta dauden edo eratu daitezkeen beste elkarte gogaideekin bat egiteko aukera uztea, Batzar Nagusiak hala erabakiz gero.
- k) Gure ingurune soziopolitiko, kultural eta ekonomikoko erakunde guztiarekin elkarrizketak egitea eta hitzarmenak sinatzea Hezkuntza Publiko osoari, euskarari eta kulturari eragiten dizkieten gaiei buruz, eta bereziki Euskal Eskola Publikoari eragiten dizkiotenei buruz.
- l) Banakako zein taldekako ahalduntzea helburu duten jarduerak garatzea, emakumeen kontrako biolentziaren prebentzioa eta errotik kentzea sustatu.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, Konfederazioak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.

- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.- Hona Konfederazioaren helbide nagusia: Ronda, 27 1. Ezkerra, 48005 Bilbao.
- Zuzendaritza batzordeak erabaki ahal izango ditu herri aldaketarik ez dakartzaten helbide aldaketak eta Elkartearen Erroldari jakinaraziko dizkio.

Konfederazioak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorak hala erabakitzen badu.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Konfederazioak batez ere hemen garatuko ditu bere funtzioak: Euskal Herria.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Bilboko (Bizkaia) CONFEDERACION "EHIGE" EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA konfederazioa iraunkorra izateko eratu da, eta Batzar Orokor Bereziaren erabaki bidez baino ezingo da desegin, VI. kapituluan esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren batengatik.

Konfederazioaren funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Konfederazioaren agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

BILTZAR NAGUSIA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Ordezkaritza kopurua honako irizpideen arabera banatuko da:

-Federatutako erakundeka.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Konfederazioaren jardura-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Konfederazioa desagitea.
- f) Presidente, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak -holakorik baleude-, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste federazio batzuekin batera konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hori, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaiolke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.

- l) Kontuak Ikuskatzeko Batzordea izendatzea.
- m) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ez-ohiko bilkurak egingo ditu.
9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.
10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen %25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira, baina, nolana ere, honako gaiak aztertze eta erabakitzeko bilduko da:
- a) Estatutuak aldatzea.
 - b) Konfederazioa desegitea.
 - c) Ondasun higiezinak baliatu edo besterenganatzea.
 - d) Konfederazioak herri onurako izendapena jasotzeko eskabidea egitea.
 - e) Artikulu honen lehenengo atalean ezarritako betekizunak betetzen dituen orok eskaturiko beste edozein gai.

Eskabidea idatziz helaraziko zaio Konfederazioko lehendakariari, eta hark egingo du batzarrerako deialdia eskabidea jaso eta 30 egunean. Nolanahi ere, Konfederazioko Idazkaritzak egingo du deialdia.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gainerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren

deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak –ohikoak nahiz ezohikoak– lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkarten erdia gehi bat bertaratzen bada edo bozkatzeko eskubidea duten kuota osoaren %51; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoen edo ordezkaturakoen gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Konfederazioa desagitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

10. artikuluan jasotako eskumenak baliatzerakoan, Batzar Nagusiek honela hartuko dituzte erabakiak:

-Aho batez: 1., 3. eta 5. puntuak.

-Bi hereneko gehiengo kualifikatua: 2. eta 6. puntuak.

-Gehiengo soila: 4. eta 7. puntuak.

Erabakiak aho batez hartzearen, erabakiak gehiengo osoz edo gehiengo soilez hartzen direnean, gutxienik federatutako erakundearen herenaren aldeko bozka beharko dute.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideri eman ahalko diote beraiek ordezkatzeko ahalmena batzar orokorretan. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Konfederazioaren egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek postaz bidali dezakete ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz Konfederazioaren interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa.

Helburuen betearazteaz eta interesen martxa onaz arduratuko da ekitaldi osoan. Estatuak bete eta betearaziko ditu. Konkretuki, Estatutuen 3. artikuluan jasotako jarduerak antolatuko ditu.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira:

- Lehendakaria
- Idazkaria
- Diruzaina
- Lehendakariordea
- Batzorkideak: gutxienez bat eta gehienez 8

Kideen %50a berritu ahal izango da urtero. Konfederatutako entitate guztiek autonomia osoa izango dute euren ordezkariak izendatzeko.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 3 aldiz jarraian, edo, tarteka 6 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek **2 URTERAKO** izendatuko dira Batzordeak berriaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kideak izateko:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko bazkidea izatea.

Nolanahi ere, ikastetxe publiko batean matrikulatutako ikasle baten aita, ama edo tutore izan beharko du, eta bere federatutako erakundearen oniritzia eduki.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Dimititzen dutenean.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen badira.

Bestalde, a) idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoa, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Halaber, b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoa, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar

Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

20. artikulua.- Hona Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Konfederazioaren eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorren jarraibideekin bat etorriz eta haren kontrolpean.
- b) Konfederazioak gauzatu beharreko ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorri aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere federazioen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.
- g) Batzar Orokorrek berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eksklusibokoak.
- h) Lokal, administrazio eta pertsonen kontratuak egin Batzar Orokorrek onartutako aurrekontuaren baitan.
- i) Urteko ohiko aurrekontuaren %20rainoko maileguak sinatu. Hortik gora Batzar Orokorri dagokio.
- j) Batzar Orokorrek onartutako aurrekontua erabili eta burutu. Presidenteak edo Diruzainak onartu behar ditu gastu guztiak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak presidenteak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru presidentea izango da, ez balego, presidenteordea;

eta horien faltan, idazkaria, diruzaina edo batzordekide zaharrena ordena honetan.

Lehendakariak egingo du deialdia, edo berak izendatutako pertsona batek, bilera egin baino astebete lehenago, gutxienik, eta bileraren Gai Zerrenda, eguna eta lekua zehaztuko ditu.

Lehenengo deialdian balioz eratu da, kideen erdia eta bat gehiago egonda, eta bigarren deialdian, ordu erdi geroago, bertaratutakoen kopurua zehazti dela ere.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, presidentearen kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu, eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

Erabakiak aho batez hartuko dira. Adostasunik ez izatekotan, Barne Araudian jasotakoa aplikatuko da.

Idazkariak akta egingo du, bilkuretan esandakoak jasotzeko, eta Konfederazioaren Akta Liburura aldatuko du. Orobat, Konfederazioko erakunde guztiei bidaliko die aktaren laburpena.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

BATZORDEBURUA:

22. artikulua.- Presidenteak beregain hartuko du Konfederazioaren legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatu ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako presidentea izango da.
23. artikulua.- Presidenteak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Konfederazioaren ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, eta federazioaren zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berriazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.
- f) Bere sinadurarekin berretsi kolegiatutako organuek onartutako baliozko dokumentuak.
- g) Konfederazioa ordezkatu bakarka edo modu kolegiatuan Zuzendaritza Batzordeko beste kide bat edo batzuekin ofizialki parte hartzen duen jarduera publikoetan.
- h) Konfederazioaren ordezkari legal moduan jardun jarduera eta kontratu guztietan. Zuzendaritza Batzordeak hala adosten badu.
- i) Indarrean dauden lege eta araudiek onartutako beste edozein.

PRESIDENTEORDETZA

24. artikulua.- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta presidenteak aldi batean bere kargua bete ezin badu, presidenteordeak ordezkatu du. Era berean, presidenteak berriaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARITZA

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, Konfederazioan sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, Konfederazioen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, Konfederazioaren agiri ofizialak zainduz, Konfederazioko liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINNTZA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

BOKALAK

27. artikulua.- Bokalek beren karguei datzekien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

KOORDINAZIOA

28. artikulua.- Batzar Nagusiak emandako funtzioak garatu ahal izateko, eta betiere onartutako ekintza eta esparru ekonomikoen baitan, pertsona egokienak kontratatzeke eskumena izango du Zuzendaritza Batzordeak, betiere aukera-ahalmen guztiekin baldintzak zehaztu eta kontratuak egiteko.

Zuzendaritza Batzordeari dagozkion jarduera guztiak delegatu ahal izango dira kargu horretan. Proiektuak koordinatuko eta berriak aurkeztuko ditu, lan eta kudeaketa-egitasmoak, Konfederazioaren pertsonal eta zuzendaritza administratiboaren arduradun izango

da, Zuzendaritza Batzordeak eta Batzorde Orokorrak ipinitako mugekin soilik. Barne Araudian jasoko da lanpostu horren perfila.

Funtzio hauek izango ditu Koordinatzaileak:

- Konfederazioa eta Zuzendaritza Batzordea bultzatu bere helburuak lortzera.
- Batzorde Orokorrak delegatuta Zuzendaritza Batzordeak eta Lehendakaritzak eskatutako lanak egin, baita egoki ikusten dituenak ere zehaztutako helburuak lortu ahal izateko.
- Konfederazioaren kanpoko ordezkaritza.
- Bulegoaren eta kontratatutako langileen zuzendaritza.
- Langileen kontratazioa eta lan-uztea proposatu Zuzendaritza Batzordeari, dagokion legediaren arabera, hala nola langileen lan-baldintzak proposatu.
- Bere jarduera eta emaitzen berri eman Zuzendaritza Batzordeari.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

29. artikulua.- Konfederaziokide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten elkarte guztiak izan daitezke Konfederazioko bazkide:

- a) Estatutu hauetan jasotako printzipio eta helburuekin bat egitea.
- b) Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan izena emanda egotea.

30. artikulua.- Konfederazioan sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta presidenteari zuzenduta. presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena federazioan onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako

errekurtsua jar dakioke Batzar Orokorrari. Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Estatutuen kopia, erregistro zenbaki eta egoitzaren helbidearekin.
- b) Elkarteen Erroldan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen erakunde eskudunaren ziurtagiria.
- c) Elkartzeko borondatea eta Konfederazioaren estatutuekin bat egitearen borondatea jasotzen duen akordioaren ziurtagiria, baita bertan ordezkaturiko den pertsona fisikoaren izendapena.
- d) Zuzendaritza batzordea osatzen duten pertsonen zerrenda.
- e) Erakundea osatzen duten pertsona kopurua.
- f) Konfederazioaren Batzar Nagusiak onartzen duen kuota ordaintzea.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

31. artikulua.- Bazkidetutako pertsona guztiek eskubide hauek dituzte:

- 1) Elkarreei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- 2) Konfederazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, Konfederazioaren kontu-egoerari eta Konfederazioaren jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Konfederazioko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastu-kontuen egoera, eta Konfederazioaren ekintzen garapenaren berri edozein unetan jakitea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- 4) Batzar Orokorrerarako deiak jasotzea, Batzar Orokorrerara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Bozka eta ahots eskubidea erabiltzea Batzar Orokorreran. Konfederazioaren Estatutu hauen arabera, Konfederazioko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.

- 6) Indarrean dauden legetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta Konfederazioaren ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (Konfederazioaren egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Guztientzako interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa jaso Konfederaziotik: legedia, formakuntza eta abar.
- 11) Konfederazioak bere autonomia errespetatzea eta ez sartzea bere barneko kontuetan, betiere hauek ez dietenean eragiten Batzar Orokorretatik datozen irizpideei.
- 12) Federatutako erakunde guztiek dute eskubidea Zuzendaritza Batzordeari eskariak egin eta ekimenak sustatzeko.
- 13) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.
- 14) Eta Estatutu eta Legediaren baitan ematen diren gainontzeko eskubideak.

32. artikulua- Hona bazkideen betebeharrak:

- a) Konfederazioaren helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Konfederazioko zuzendaritza-organoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

- e) Konfederazioari jakinarazi Estatutu, Zuzendaritza-batzorde edo Egoitza Sozialean egiten den edozein aldaketa.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

33. artikulua.- Bazkide izaera honelakoren bat gertatuz gero galduko da:
1. Hil egitea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegitea).
 2. Bazkidea bere borondatez joatea, erakundearen Batzar Orokorrean hartutako erabaki baten bidez eta Konfederazioko Presidenteari behar bezala jakinarazita, honek Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko diolarik.
 3. Urteko kuota ez ordaintzea, idatzizko justifikaziorik gabe, hala nola Batzar Orokorrek onartutako bestelako ordainketak.
 4. Kide den erakundea desegiten delako.
 5. Konfederazioaren helburuen kontrako jarduera publikoak egiteagatik.

ZIGOR-ARAUAK

34. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrek nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

35. artikulua.- Bazkideren batek Konfederaziotik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrek edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako

betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, presidenteak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, presidenteak jarduerak artxibatzeko agintzea edo federaziotik kanporatzeko zigor-espeditentari hasiera ematea erabaki dezake.

36. artikulua.- Konfederaziotik kanporatzeko zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espeditenteko instruktoea izan den idazkariak.

Konfederaziotik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsua aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzarrik egiten ez bada, batzar bat egin beharko da horretarako bakarrik. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espeditentea aurkeztuz gero, idazkariak espeditentearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

37. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

38. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

RESPONSABILIDADES

39. artikulua- Konfederazioa ez da izango konfederatuta dagoen edozein elkarteren jarduera unilateralen arduradun, hauek pribatiboak izan edo ez, eta soilik bere organo gobernuen akordio eta jardueren erantzukizuna izango du, betiere Estatutuen arabera.

OHIZ KANPOKO KOLABORAZIO ETA EKINTZAK

40. artikulua- Konfederazioek ezingo dizkie eskatu konfederatutako elkarteei haien interesen kontra dagoen kolaboraziorik, ezta sustatu ere elkarte batzuei mesede egin eta beste batzuei kalte egiten dienik ere. Kalte hori ezin baliteke ekidin, kalte hori jasateko txandaketa ezarriko da.

ESKUBIDE ETA ONDASUNAK GALTZEA

41. artikulua- Erakunde batek Konfederazioa uzten badu edozein arrazoiengatik, dagozkion eskubide eta ondasunak galduko ditu eta hauek Konfederazioaren esku geratuko dira.

LAUGARREN KAPITULUA

SOZIJETATE ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

42. artikulua- Elkarreak ez du **SOZIJETATE ONDARE**rik.

43. artikulua.- Federazioak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- a) Ondare-ekarpenak.
- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.

- c) Konfederazioaren ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jardueretatik datozen diru-sarrerak. Sortu daitezkeen beste kontzeptu batzuk emandako sarrerak. Gure Ordenamendu Juridikoaren arabera jasoko dira sarrera hauek.
- e) Erakunde Babesleen dohainak, diru-laguntzak eta hitzarmenak estamentu edo pertsonekin, ematekotan. Transmisioak.

EKITALDI ASOZIATIBO ETA EKONOMIKOA urtekoa izango da eta **abenduaren 31ean itxiko da** urtero.

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) Konfederazioak lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

FONDOAK BALIATZEA

44 artikulua.- Konfederazioaren fondoak banku-kontu edo gordailuetan gordeko dira, eta, dauden fondoak erabili ahal izateko, Lehendakariaren eta Idazkariaren sinadurak beharko dira, nahitaez bienak, edo, bata edo bestea egon ezean eta hura ordezteko, Zuzendaritza Batzak horretarako ahala emandako pertsona batzuenak.

URTEKO AURREKONTUAK

45. artikulua- Zuzendaritza Batzak egingo ditu aurrekontuak, ohikoak ala apartekoak izan, urtebete naturalerako, Konfederazioaren beharrianen arabera eta Batzar Nagusiak onartu beharko ditu.

KONTUAK IKUSKATZEKO BATZORDEA

46. artikulua- 7. artikulua ezarritakoaren arabera, Kontuak Ikuskatzeko Batzordea sortuko da, ikuskatze-organo gisa, eta Zuzendaritza Batzako kide ez diren Batzar Nagusiko hiru kidek osatuko dute.

Batzorde hori Ohiko Batzar Nagusia egin baino lehen, astiz, batuko da, amaitutako ekitaldiaren kontu-balantzea ikuskatzeko, eta, horretarako, kontabilitate liburuak, sarrera-egiaztagiriak, ordainketa-aginduak eta, oro har, datuak egiaztatze beharrezko izango dituzten agiri eta argibide guztiak emango zaizkie.

Batzordeak txostena idatziko du, eta amaitutako ekitaldiko kontuen balantze eta egoerarekin batera bidali beharko zaie kideei, batzarrerako deialdiarekin batera. Zuzendaritza Batzatik erabat bereiz jardungo du, eta, orobat, Zuzendaritza Batzarekin bildu ahalko da, bere lana betetzeko beharrezko iruditzen zaion guztietan.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

47. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

Estatutuak aldatzeko, Zuzendaritza Batzak berak eskatu edo, federaturiko elkarten %25ek –bozken %25eko ordezkari izan behar dute– hala eskatuta, berak onartu beharko du. Nolanahi ere, hiru zuzendaritzakidek osaturiko Batzorde Txostengilea aukeratuko du Zuzendaritza Batzak, estatutuak moldatzeko egitasmoa idatz dezaten, batzaren irizpideei jarriki. Eta Zuzendaritza Batzak ezarriko du egitasmoa amaitzeko epea, edozelan ere, gehienez 6 hilabetekoa.

48. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidenteak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du, edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Onartua izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo batzorde orokor ezohikoaren gai-zerrendan sartzea erabakiko da.

49. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrek Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

50. artikulua.- Konfederazioa honelako kasuetan ezabatuko da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek federazioa desegitea agintzen duelako.
6. Konfederazioaren helburuak betetzea ezinezkoa delako.

51. artikulua.- Konfederazioa deseginez gero, horixe erabakitzen duen batzar orokor ez-ohikoak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, eta hark hartuko ditu bere gain dauden funtsak.

Bazkideekiko eta besteekiko federazio-betebeharrak bete ondoren, geratzen den federazio-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenei bati eman beharko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Behin-behinean izendatuta egon eta eratze aktan ageri diren Zuzendaritza Batzako kideek egingo den hurrengo Batzar Nagusiaren esku utzi beharko dituzte beren izendapenak.

Federatutako erakundeek EHIGERi egin beharreko aportazioak, urteko aurrekontu arruntaren defizita edo beharrezkoak diren aportazioak, guztizkoari ondoko portzentaiak aplikatuta kalkulatu dira:

BIGE (% 38) – BAIKARA (%33) – DENON ESKOLA (%28) – ESKOLA TXIKIAK (%1).

Kide berriak gehitzekotan Konfederaziora, berriro kalkulatu da federatutako erakundeek egin beharreko aportazioa.

Federatutako erakundeek egin beharreko aportazioen banaketa hau mantendu egingo da baldin eta aldaketarik ez badago Eusko Jaurlaritzak erabiltzen dituen baldintzetan dirulaguntzak emateko. Aldaketarik blego baldintza hauetan, berrikusi egingo da federatutako erakunde bakoitzak egin beharreko aportazioa.

ORDEZKARITZA IRIZPIDEAK

Federatutako elkarte bakoitzeko kideek duten ikasleen batez bestekoa –gehienez, %40, eta, gutxienez, %3–.

Bizkaia.....	BIGE.....
.....	9	
Gipuzkoa.....	BAIKARA.....
.....	7	
Araba.....	DENON	
ESKOLA.....	6	
Eskola Txikiak.....	ESKOLA TXIKIAK.....2
GUZTIRA.....	
24		

Horrakoa izango da federatutako erakunde bakoitzak batzarrean izango duen bozka-kopurua, bozkatzeko orduan bertan dauden ordezkarien kopurua gorabehera. Batzako bileretan ere proportzio horixe egongo da, eta horietara federatutako erakunde bakoitzak nahi beste ordezkari bidali ahalko ditu (1,2,3...). Gauzak horrela, eztabaidarako egoki iritzitako nahi beste ordezkari eduki ditzakete federazioek, aldi berean, bileran, bai eta batzak berak edo EHIGEko batzarrak egoki iritzitako teknikariak egon ere.

Proportzio horiek honelakoetan aldatuko dira: beste federazio batzuek bat egiten badute konfederazioarekin; ikasleen proportzio aldatzen bada; edo Batzar Nagusiak bestelako batzuk onartuta.

Nolanahi ere, estatuotako 14. artikulua ezarritakoari jarraituko zaio.

AMAIERAKO XEDAPENA

LEHENA.-

Zuzendaritza Batzak izango du eskumena Estatutu hauetan jasotako aginduak interpretatzeko eta bertako hutsuneak estaltzeko, betiere elkarteei buruzko indarreko legediari jarriki eta haren berri emanda, egin behar den hurrengo batzar nagusiak onar dezan. Zuzendaritza Batza aukeratzeko ondoko irizpideei jarraituko zaie:

Federatutako elkarte bakoitzak hautagai bat aurkeztuko du. Boto gehien jasotzen duena izango da Lehendakari.

BIGARRENA.-

Zuzendaritza Batzak eta Batzar Nagusiak balioz hartutako erabakiaren bitartez moldatuko dira honako Estatutuak, bakoitzak dituen eskumenen baitan, eta bosgarren atalburuan aurreikusitakoarekin batean.

HIRUGARRENA.-

Batzar Nagusiak Barne Araubidea onartu ahalko du, honako estatutuak garatzearen, baina horrek ez du inola ere aldatuko bertan jasotako inongo agindurik.

Euskal Herrian, 2018ko uztailaren 9an.